



Ref: M076CD

Azaleko Informazioa

Metal talde sendo honen lan berria. Ekoizle lanetan berriz ere Mikel Anestesia topatuko dugu, berarekin batera bildu eta "Kontra" izeneko lan hau osatzen duten 10 ukabilkadak burutu dituzte. Metalaren brankan kokatu behar den talde honen arramaska berria.

Iraupena: 42:52

Kantu kopurua: 11

Kantuen izenburuak:

01. Aurrera
02. Egunak
03. Kontra
04. Errebelazioa
05. Laztanak/Oihuak
06. Hitzik esan gabe
07. Sosegu eza
08. Odola eta malkoak
09. Haur denborak
10. Ilargia egunez
11. belaunaldi zauritua

Partaideak:

Iñigo: Bateria

Ander: Baxua

Sergio: Ahotsa eta gitarra

Nestor: gitarra

Grabaketa tokia:

Fidelenea, Zarautz.

Teknikaria:

Mikel Kazalis

Promozio material eskuragarria:

-Postaleak

-Argazkiak

Metak:

Eguzkitza karrika 13

20.304 Irun. EH

Tlf. 34 943 63 31 37

Fax. 34 943 63 31 30

info@musikametak.com

www.musikametak.com

Argitaratze Data:

2005/11/04

erasol! KONTRA

SUSTRAIAK LURGAINEAN AGERI DIRA

Erasol-k hastapenetatik gaurdaino oraindik ere egiten dutena beste askok sinisten ez duten moduan sinisten dutela ziurtatu dezake idazten ari den honek. Entsegu lokalean izan zen behin eta bertako paretak oraindik nola mantentzen diren galdetzen zion bere buruari, nola eusten ote zuten horrenbeste ekaitz eta trumoi. Bapatean bazen aldaketa nabari bat laukoteari begira gelditu zenean, orain gutxi arte baxuaren gorputz pisutsua eusten zuen Amaiur-en tokian Ander (Estigia, Nork ...) ikusten bait zuen eta harriturik gelditu zen beste hirukoteari nola itsasi eta bateratu zitzaion ikustean betidanik eurekin egon balitz bezala. Aldaketa eta berritasuna ez zen laugarren partaidearena izan soilik, lan egiteko beste era bat ere erakutsi zuten arratsalde hartan. Konposizio berrien aztarnak ordenagailuan ageri ziren gitarra, eztarri eta bateria inperfektuez beteak baina bidea aurkituko zutenaren konbentzio osoz. Lokalean ezik estudioan ere eurekin batera egoteko aukera izan zuen eta entzuten zituen abesti zati eta puskekin diskoaren nondik norakoak igarri nahian aritzen zen; bere burutapenetan murgildu baino ez zen egiten.

Azkenean Kontra hasi da compact disc delakoan, ezerk geldituko ez dituenaren seinale eta izenburu. Lasaia dirudi segundu batzuez bada ere, baina konturatzerako sorpresaz harrapatu zaitzake gitarra zapaltzaile eta erritmo sendoa daraman Aurrera abestiak. Badirudi Ander, Iñigo, Nestor eta Sergiok denbora gutxian erakutsi nahi dutela euren 4. diskoan aurkitu daitekeena. 42 minutu 48 segundu. Konturatzerako iritsi da bukaerara Belaunaldi Zauritua abestiak daraman amaiera hipnotizatzaileak harrapatuta eta harriturik entzun dituen kantuak nolakoak izan diren adierazteko hitzen bila hasi da. Metala izan dute ardatz beti taldekideek, nahiz eta beste lan batzuetan izan duten eremu ezberdinetan murgiltzeko betarik. Oraingoan ordea, zainetan eta bihotzean daramatena erakusteko bilduma sortu dute eta agian horregatik Erasol-ren disko beltza izan daitekeela pentsatzera iritsi gaitzake. Disko beltz ugari izan dira euren ezaugarriak dituzten taldeetan konsolidazioa erakutsi dutenak, eta hori izan daiteke oraingoan talde honi tokatu zaiona. Inoiz baino gardenagoak, inoiz baino kezkatuagoak baina inoiz baino indartsuagoak. "...adierazpen askatasuna bait da azken finean ate berriak irekitzen dizkiguna" bezalako esaldietan igarri daiteke taldeak barruan duena kanporarazteko dituen gogoak, sentimentuak adieraziz, konpromezua erakutsiz eta aurrera begiratzuz kontra jartzen zaionari beldurrik izan gabe. Mikel Anestesiaren laguntzaz 90ko hamarkadako metalaren erritmo eta soinuak berreskuratu dituzte, gaurkotatunarekin nahastu eta bidea zabalagoa eta solidoagoa bihurtu bertan barreiatzen dena behar den bezala transmititu ahal izateko.

H.Lekter